

Alcornocales kostaldea.

Penintsula Iberiarraren hegoaldean, Afrikaren begiradapean, topaketa emankorrek gertatzen dira, Atlantikoa Mediterraneoarekin nahasten da, eta Alcornocales Parke Nazionala Gibraltarko itsasartearen mugakide da.

Batzuetan topaketak tragikoak dira. Hala izan zen *Dina* merkatal ontziak, Panamako bandera eta eskifaia grekoarekin, hondarpeekin topo egin zuenean ere, 1983an, Levante haizeak bultzaturik hondoa jo zuenean. Ontzia apurtu zenean, kapitainak, lehenengo ofizialak eta makinistak ez zuten irten nahi izan. *Dina*-ren bukaera iritsi zen arte. Cala Arenas-en hondoratu zen, Piedras del Chorlito deitutakoen parean. Bertakoek *El Habichuelo* deitzen diote, babarruna, zeraman zama nagusia zela eta. Orain itsas hondoa sakabanatua. Gaur egun ez da babarrun arrastorik gelditzen, eta kroskoa, gainazaletik hamar bat metrotara, itsas hondo bat gehiago bihurtu da.

Hala ere, epifito artean kamuflaturik, gizakiak egindako tresnaren bat ikus daiteke oraindik, hilda jada, algaz inguratua, euskarri izatea duelarik funtzio bakar. Haizeak, urak eta denborak ontziaren egitura eraldatu dute eta bere gainazalean itsas bizitza finkatu da forma bentoniko guztietan.

Pieza batzuk oraindik ezagut daitezke, baina beste batzuk bere habitat eta maizter berriekin mimetizatu dira. Algek ez dute behin itsasontzi izandako metalezko materiala eta betidanik harkaitz izandako harrizko gainazala bereizten.

Salikornia edo itsas zainuria bezalako algek substratu trinko eta solidoa behar dute, itsasartean etengabeak diren korronteek erauz ez ditzaten gogor atxiki behar baitira. Bestela, korronte hauek aurrean harrapatzen duten guztia eramaten dute.

Baina zenbait organismok, espirografoek esaterako, kalte baino abantaila gehiago jasotzen dituzte, korronteak elikagai eta oxigenoa uzten baitizkie beraien zakatz mototsetan.

Baina badira korronteekin arazo handiagoak dituzten izakiak ere. Bizarginak harkaitz baten babesean aurkitzen du atsedena, eta bertan hareazko zurrunbiloek urak urpeko ibilbide hauetan duen indarra islatzen dute.

Gainazalean, haize errotek abiadura bizian biratzen dute. Kixote modernoek borrokatu behar diren erraldoiekin nahastu arren, egungo Santxoek, zentzu onez, gizakion bizitza hobetzeko haizearen aliatutzat hartzen dituzte.

Tarifa eta Algeciras artean, Guadalmesi ibaiaren ahoan, izen bereko dorrea etsaien ontziek urik ez hartzeaz arduratzen zen.

Harriak ibaiarekin batera jaisten dira La Luna mendizerratik. Atsedean hartzen dutenean, Afrika aurrean, argia maite duten eta mareek ezartzen duten aldizkako ureztatzera moldaturiko algek estaltzen dituzte

Itsaso azpian, ia ertzik gabe jada, arraintzat babesleku eta algentzat substratu izango dira.

Eta lan hori itsasontzien burdinekin banatuko dute. Itsasontzi baten lurrunak zeharkatzen zuen tximinian, orain arrain eta krustazeoek jolasten dute; har eta krustazeoak babesten dira, eta algak finkatu, batez ere korronteen aurrean sendoenak eta hazkuntza azkarrena daukatenak.

Bizargin txikiek zuhertasunarekin berdintzen dute beraien ahultasuna.

Itsas kabrak, berriz, asaldatu gabe jasaten du Gibraltar itsasarteko korronteen oldarra.